

Durundi Barrik hainbat ekintza eratu ditu bere 50. urteurrena dala eta

13. orrialdea

Jabekuntza Eskolea abian

Bere estreineko ikasturtean, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak dozena bat ikastaro antolatu ditu 2016-2017 ikasturterako. Ikastarook zortzi atal tematikotan dagoz bananduta eta Arratiako herrietan izango dira. Eskolearen helburua andren parte hartze publikoa sendotzeko prestakuntza emotea da. Aurkezpena, urri lehenengoaren 30ean izango da Areatzan. **13. orrialdea**



Zeanuriko II. Mendi Duatloia urri lehenengoaren 17an izango da

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

258

2016ko urri lehenengoaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Heavy metala Diman

Aurten bigarrenaz, Dimetaleroak, heavy metal musika maite dauan Dimako alkarteak, Dimetal Fest jaialdia antolatu dau. Metalaren azpigenero desbardinak jotzen daberen zazpi taldek joko dabe arrasti eta gauean. In Mute valentzia-

rrak dira kartelburu.

Kontzertuez gainera, mahai-ingurua, bazkaria, bertsoak, kalejireta eta txikiguneak girotuko dabe herria egun horretan. Jaialdia egonkortu eta urtean-urtean hobea egitea gura dabe antolatzaileak. **12. orrialdea**



Gorbeia Suzien Ternua lasterketea Zeanurin



Urri bigarrenaren 1ean izango da Gorbeia Suzien Ternua lasterketea. ISF National Championship, Europa Hegoaldeko mendi lasterketa zirkuitu onenean dago sartuta.

Lasterketa Nagusiaz gainera, Lasterketa Herrikoa be egongo da. Hau galapan edo oinez egin daiteke, eta hurrengo egunean umeentzako izango da. Proiekzioak eta mendiari lotutako ekintzak be egongo dira. **11. orrialdea**

IGORRE

Jubilautakoan karta jokoak ez da aukera bakarra

Igorreko Jubiladuen alkarteak Igorreko Udalagaz alkarlanean, adinekoren beharrezanai egokitutako udagoieneko programazinoa aurkeztu dau. Teknologia barrietan, legedian eta osasun jabekuntzan formakuntzea jasoko dabe eta kirol eta kultura jarduerak ugari prestatu dabez 2016-2017 ikasturteko lehenengo hiru hileroak.

Alkarteak zahartze aktibo eta kalidadekoa gura dau bere bazkideentzat eta alkarteko presidentea eta idazkaria, Nagusiak izeneko Bizkaiko Jubiladu eta Pensinodunen alkartean be hartzean dabe parte.

Igorreko Udala, edadekoak herri atseginen sarean sartzeako beharrezan dagoala dinoe Jubiladuen alkartekoak. **7. orrialdea**

ARTEA

Arratiako baserriko produktuak eta Kalakan kontzertuan MerkArtean

Urri lehenengoaren 17an izango da MerkArtea, baserria, artisautza eta musika batzean dituan azokea. Arratiako baserriko produktu eta produktu artisauen azokea, egurrezko jolas tradizionalak, Gibelurdin taldea erraldoiak kalejiran, herri kirolak Ekomuseoan, Kalakan taldearen kontzertua, erromeria Tximeleta taldeagaz eta DJ Bull egongo dira.

5. orrialdea

IGORRE

Igorreko merkatariak, hamahiru urte beharrean euskerearen alde

Beinke, merkatarien euskera taldea 2003an sortu zan, eta ordutik martxan dago Igorren, merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuzaintzan arloan euskerearen erabilera bultzatzeko. Urte honeetan guztietan hainbat kanpaina ipini dabez martxan eta euskeraz egiteko konpromisoak hartu dabez. Sano talde aktiboa da eta euskerearen normalizazioaren aldeko lan handia egiten dau herrian. **8. eta 9. orrialdeak**



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com
helbidera neurria adierazoz

ARRATIA ZURI-BALTZEAN**GORBEIAGANETIK JOAN-ETORRIA:
JUANTXO ASTONDOAREN MARKEA**

Datorren urri bigarrenaren 1ean Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea jokatu da. Proba hau atxakiztat hartzean dogu Juantxo Astondoak XX. gizaldiko berrogeta hamarreko hamarkadaren amaierarantza jarri eban marka gogoratzeko. Sasoi haretan artzain egoan Juantxo Gorbeian. San Lontzo egunean, jaiak zira-la eta, etxera jaitsi zan, Uribeko Iturtza baserriera. Gauean, Uribeko Axpe baserrian, Alejandro Baste-rrerxeanean afaltzen egoala sortu zan erronka: Zeanuriko plazatik Gorbeia gurutzera joan-etorria hiru orduan ezetz egin!

Hurrengo egunean, San Lontzo bigarrenaren, abarkak jantzi, Zea-

nuriko plazatik urten, Gorbeia-neraino igon eta barriro Zeanuriko plazara brinean egin eban buelta. Behar izan eban denporea: ordu bi eta hogeta zortzi minutu. Hor geratu zan Juantxoren marka.

Antzerako beste proba bat egin eban Juantxok. Oraingoan 1.000 pezeta jokatu eutsazan Orozkoko Alejandro "Txandro" abeltzainari: Orozkoko Adaro auzotik, Txandoren baserriaren aurretik urten eta Arrabako aterpetxeraino ordu betean baietz heldu.

San Juan egunean —pastoreen santua— Gorbeia artzainak eta abeltzainak Arrabako aterpetxean bazkaria egiteko ohitura izaten eban, euren eguna ospatzeko.

Hurrengo egunean, toki berean txahal bat jateko geratu ziran, eta aldi berean, bazkalurretik, Juantxok Txandrogaz eukan posturea egiteko aprobetxau eban. Berrogeta zortzi minutu behar izan eban Adarotik Arrabako aterpetxera heltzeako eta apustuko 1.000 pezetak boltsikoratu eban.

Hirugarren proba bat be egin eban. Oraingoan Arratiako tranbiaren kontra: Lemoako tren geralekutik Zeanurira tranbia baino lehenago baietz heldu. Sasoi haretan Firestone lantegian eban beharrean Juantxo; gaueko txandan behar egin ostean, etxerako bueltan, tranbiagaz batera Lemoatik urten, Arantzazun Maskiluren tabernan kopa bat edan eta tranbia baino lehenago ailegau zan Zeanurira.

Jon Urubxurtu



Eskoikoa Juantxo Astondoa, Gorbeia artzaina.

TELEFONO INTERESGARRIAK**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenengoaren 12tik 18ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 19tik 25era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri leh. 26tik urri bigarrenaren 2ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehen, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Miren Madariaga eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhua Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Hemen eta orain, egin daigun herri!

Hemen. Ez hor ez han. Orain. Ez bihar ez etzi. Herri egiten (h)ari gara, herri egitera goaz, irri egiten dogun bitartean. Egia esan, ez dakigu besterik egiten. Gobernu egin gura dogu, ez gobernuan egon. Herriaren etorkizuna eskutan hartu eta alkarregaz landu. Poderea burukatu eta indar harreman handiak sortu. Herriarrok poderetu.

Gagozan lekuetan, ondo egiten dogu. Ondo dakigu hori Arratiako herrietan. Herriarraz eta herriarrentzako gobernu gura dogu. Demokrazia formal hutsa denonkrazia bilakatu gura dogu.

Herria alkarregaz egiten dogu guk, horixe dalako herri egiteko modu bakarra. Herri honek aurre-

ra egin behar dau, eta ezin dogu aurrera egin herritarrok atzera egiten badogu. Eta horretarako, akordioa da bidea. Horregaitik luzatu deusagu akordiorako deia gugandik hurbilen dagozanai, akordio nazional eta sozialetarako bidea urratzeko prest gagoz. Behar danagaz. Herri akordioetarako prest gagoz, eta gogotsu.

Langabezia eta prekariedadearen aurrean enplegu duina eta eskubide sozialak bermatu behar doguz. Menpekotasunaren aurrean, erabakitzeko eskubidean oinarritutako burujabetzarantzko bidea jostea da gure apustua. Bakegintzearen alorrean, benetako bakearen eta konponbidearen bilaketan inplikauko gara.

Programa zabal eta sendoagaz aurkeztuten gara, arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrak hobeto bizitea ekarriko leukien 720 neurri zehatz. Herri aurreratua gura dogu, burujabea, demokratikoa, etorkizuneko, jasangarria, osasuntsua

eta ikasia.

Badago gauzak aldatzea. Feudoak ez dira betirako, eta zaplasteko ederra emon ahal deutsegu betiko jauntxoai. Eta dana irribarrea galdu barik. Barre egitea haginak erakusteko beste modu bat baino ez da. Hori azaldu guran gabiz kanpainako hamabost egunotan buru-belarri. Datorren eguaztanean, hilaren 21ean, Arratia mailako ekitaldia egingo dogu Igorren, Lasarteko plazan, 19:30etik aurrera, Itsaso Bengoetxea igorretarragaz eta Julen Arzuaga parlamentariagaz.

Haize barriak eroan daikeguz Gasteizeko parlamentura. Aukera ederra daukagu horretarako urri lehenengoaren 25eko hauteskundeetan. Gure esku dago baliatzea!

ARRATIAKO EH BILDU

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Antiju



Hasikera baten, begien aurrean ipinten zan kristalezko lente bakarrari antioju edo antiju esaten jakon; lente bikoa, barriz, pluralez erabilten da (antifjuek, agoskatuta). Batuz, betaurreko da. Era desbardineta antiojuak dagoz: esaterako, egun eguzkitsuetan erabilteko, aproposak dira "eguzkitako antiojuak". Erostean gainera, optikoak persona bakoitzaren begiartearen neurria egokitzen deusuz erabili beharreko antiojuak. Amaitzeko, urrinekoa ikusten ez dauanari "begilabur" esaten jako, eta bere arazo edo patologiar "bista-laburra".

ERETXIA



SAIOA HERNANDEZ

Sexologoa eta Bardintasun Teknikaria

Sexu eraso: % 100 indarkeria matxistea, % 0 sexuala edo erotikoa

U da honetan eraso matxistai aurre egiteko hainbat ekintza egin behar izan dira. Batzuk erasoak saihesteko eta kaleak eta jai gunek beldur bako lekuak bihurtzeko asmoagaz. Beste batzuk, zoritxarrez lruñean, Basaurin edo Getxon gertatu dan moduan, erasoak egon ondoren, salatzeko eta ardurak eskatzeko. Mobimentu feministearen aldarrikapena egun bero honeetan zabaldu egin da, eta jentarteak arazo bortitz honeguz behin betiko amaitzeko grina erakutsi dau plaza askotan.

Eraso honek guztiz matxistak dira, eta ez daukie zerikusirik sexualidadea edo erotismoagaz. Harreman edo praktika sexual baten, alkarregaz gozamina, musukatzeko gogoia edo bestelako jolas erotikoen bizipoza praktiketan da. Personeren arteko desira anitzen adierazpenak eta gozamen sensazioak biziteko momentua da. Gizonaren zein andrazkoaren desira amaitzen dan momentuan, praktika sexuala amaitzen da. Zelan ba ez gara konturatuko gugaz intimidadean dagoan personearen desira amaitu dala? Ikaragarria da sanferminetan bost mutilen artean neska bat bortxatzeagaitik mutiak deklarau behar izan ebenean, bostak guztiz lasai esatea: "neskak gura izan ebala".

Adierazpen eta portaera sexistak identifiketan, ekiditzen eta

eraldatzen ez diran bitartean mutil askok berbakaz, genitalakaz edo eskuakaz erasotzen jarraituko dabe. Gizon batzuek euren gogoeta inposatzea "normalizat" hartzean dabe eta.

Adi egon! Ezpabere indarkeria justifiketan amaitu geinke; biktimak izan diran andren azalpenak ukatzen, froga medikuak egon arren bortxaketa egon dala zalantzan ipinten edo erasotzailea biktima eta biktima erasotzaile bihurtzen.

Zer egingo dogu ezetza "ez" dala ulertzen ez dabenakaz!? Zer egingo dogu kuadrilako "babosoagaz"? Zer egingo dogu futbolariak babestearren "adin txikiko prostituzinoa" deitzean deusien egunkariakaz, izatez bortxaketak izan diranen kasuetan? Zer egingo dogu biktima zalantzan ipinten dauan auzokideagaz?

Erantzun! Erasota mota guztien aurrean, erantzun! Askatasuna eta maitasunaren alde!!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata
Batzen gaita

MONDRAGON

LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Joan por joan ez

Eta barriro be hauteskondeak! Buzoian botaten deuskunak eta ingurueta tabloietan kola partideagaz lotuta dagoan karteleriak, animau egiten gaitue ebatzi bat hartu dagigun. Herri honetan inoiz ez gara botoa emoteko alperrek izan, edozein demak biztu egiten gaitu, sena beharbada, eta horregaitik, gehiengo handi bat, ekite handirik behar barik, joan goaz.

Ateetan daukaguzanak barriz, esangura berezikotzat daukadaz, geure herriaren izaera eta etorkizuna, eretxiak eretxi, jokoan sentiduten dodazalako. Honeetan neure egiten dodazan proiektu eta ilusinoak, gurako neuken herriaren eredu egia bihurtu ala hankaz gora ipinteko, eskukada bat botoetan barruntetan dodaz. Nik, 25ean aukeratuko dogun parlamentuari, urteetan lortu doguna sendotzea eta hobetzea eskatuko neuskio; batez be, geure inguruagaz konparatuz, eta hau ez da nire burutazinoa, ez dalako bape be txarra. Esaten nabilena, inolako susmo-

rik ez daukiezan datu eta zenbaki hotzak oinaritutako baieztapena besterik ez da. Euskadi, dinoskue analistak, askoz hurrago dago Europako zifretatik, Espainiako egoeratik baino. Izan badirala aurretik esanda, zorte edo sorginkerietan fede handirik ez dodala aitortu behar deusuet; argi daukadana oster, hori lortzeako sekretua da: eguneroko beharragaz batera, herriarengan sinestean, herriarengan fidatzean eta akitu artean berba egitean dagoala. Nik, geureari, akordietarako herriaren antza emon deusat betidanik; arpegira begiratu, berba egin eta alkarregaz gauzak aurrera ateraten ahalaginduten daretanikoa; kostata bada be. Horregaitik, benetan gogotik itxoten dodana, plastikozko kutxarako biaje jentetsua, "joan por joan"eko ez izatea da. Daroaguzan hamar hilabete luze honeetan ikusitakoagaz, bildurrak hartuta nago. Benetan itxiko ete dogu euren Espainia gobernau ezinik dabizen eskuetan gure etorkizuna? Euren aberriari barre egiten deustsien ardurapean ipiniko ete dogu gurea? Sinistuko deutsegu euren herrikideak linboan sartu dabezenai Euskadirentzat zerua aginduten dabenean? Orratza hartuten ez dakiena sastre? Ez nik lagunduta sikan.

Halanda ze, kontuz! Sobreak zarratu baino lehen, entzun dagigun senetz alderdiak egiten deuskuezan proposamen, egiteko eta zehaztasunak. Entzun zer, zegaz eta zelan atera gura daben aurrera gure herria, hori dalako benetan gobemetan dakienaren mezua. Eta desbardindu, ze, kanpaina euren zileri begira eta aurkakoa lumatuten emoten dabenak, oposiziorako hautagai argiak baino ez dira.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Denbora nice

Nostalgiaren minsorak ziztatu zaitu barriro eta gazteminak jota iraganaren bide lausotan galdu zara.

Ihes egindako aukeren artean bat datorkizu taigabe gogora: neska hura, taberna hartan dantzan, zuri irri abegitsua eskainiz.

Baina, ez zinen ausartu.

Bitsak hitzak lapurtu zizkizun eta kalamu keak kuraia.

Zure aurrean lurrundu zen irudia. Bestelako bidaia baten ataria izan zitekeen une hura, betiko zure barruan iltzatuz.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduaren ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Pirinioetako Oulettes de Gaube zoragarrian Asier Garciak ateratuko argazki honegaz gogoratu gura deutsegu irakurleai, hilaren 27a dala azken eguna Argazki Lehiaketan parte hartu gura dabenak, argazkiak bialdu dagiazan.

Egile bakotzak gehienez 3 argazki bialdu ahal ditu, begitu@topagunea.com helbidera, argazkia noz, non eta nok atera dauan esanez. Irabazleak, persona birentzako astegoiaren bateko egonaldia landetxe baten izango dau saritzat.

Ez galdu aukerea eta bialdu oportetako argazkirik onenak BEGITURA.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa
hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zerbait 100
R.P.S. 21/06

begitu
aralia ubide suterko

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Baserri Modernoaren jaia MerkArtean



23. merkartea

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 17an izango da MerkArtea, baserria, artisautza eta musika batzean dituen azokea. Goizean, azokan 41 postu baino gehiagotan gaur egungo baserriarrak euren produkturik onenak ipiniko ditue salgai: Arratiako produktuak, ahate produktuak, trufak, txakolina eta, beste produktu askoren artean, Euskal Herriko garagardoa dastatu ahal izango dira bertan. Eskuz egindako bitxiak, lore sikuak eta narruzko gauzak be, eskeiniko ditue artisauak. Iluntzean hasi eta goizaldera arte, kontzertua, Tximeleta taldeagaz erromeria eta DJ Bull-ek musikea ekarriko dabe Arteara. Kontzertua, Kalakan taldeak joko dau, Madonnagaz josten jirea egin eban taldeak. Eurei esker, Madonnak euskal kanta tradizionalak kantau ebazan mundu osoan, rock-a eta euskal tradizioaren fusinoa eginez.

Gauza tradizionolai buelta bat

emon eta gizarte modernoari egokitzeko joerea dago gaur eta MerkArtean antolatu dituen ekin-tza guztietan, egokitze hori ikusi ahal izango da. Azoka bitartean, egurragaz olgetako aukerea izango dabe umeak; izan be, Zuresku, egurrezko jolas tradizionalak egongo dira plazan hamaiketarik ordu batetara.

12:30ean, Gibelurdinak kalejireia egingo dabe. Igaz be egon zan Fredi Paiaren taldea. "Oso arrakastatsua izan zan Gibelurdi-nen igazko emonaldia eta barriz be euren presentziagaz gozotutea gura dogu" azaldu deutso BEGITURI Iker Atutxa zinegotziak.

Ondoren, umeak ogia egiteko aukerea izango dabe labe mobikorrean eta 13:00etan, herri kirolak egongo dira Ekomuseoan. Irati Astondoak eta Esti Olibaresek, trontza, azkora eta lokotz batzeako erakustaldiak egingo dabez.

Iluntzean, Kalakan taldeak kontzertua eskeiniko dau eta ondoren erromeria eta DJa goizaldean.

ARRATIA

San Migel jaiak bailarako hainbat ermitatan

Erredakzioa

San Migel eguna hilaren 29an da eta izenpe horretako ermiten inguruan jaiak ospatuko dira. Alzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre) eta Uriben (Zeanuri) dagoz San Migel ermitak. Horretako batzuetan, Artean, berbarako meza ostean barauskarria egongo da. Uriben eta Garben, barriz, hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe.

Urbe (Zeanuri)

Urri lehenengoak 24, zapatua 14:30ean auzo bazkaria.

Arrastian Mus eta Briska Txapelketak.



Urri lehenengoak 25, domekea 12:00etan, meza nagusia.

Meza ostean barauskarria eta jokoak: txapel jaurtiketea eta beste batzuk.

Urri lehenengoak 26, astelehena

12:00etan, animen aldeko mezea.

17:00etan, urdaia eta txokolatea danontzat.

Garbe (Igorre)

Urri lehenengoak 29, eguena 11:00etan, jaiari hasikerea emoteko txupina.

12:00etan, mezea.

13:00etan, barauskarria.

Urri bigarrenak 1, zapatua

19:00etan, erromeria Basajaun taldeagaz.

Urri bigarrenak 2, domekea

16:00etan, Briska Txapelketea.

17:00etan, umeentzako puzgariak eta herri kirol jokoak.

ARRATIAKO IBAIERTZETATIK VII. MARTXA ZEANURI - BEDIA

IRAILAK 18, domeka

LUZEERA: 20 Km inguru
IRAUPENA: 4 ordu
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik 8:30ean

- Autobusa egongo da Zeanurira joateko
- 8:00etan Bediatik herriz herri Zeanurira (Dimatik ere)
- Amaitzean (14:00ak aldera) Bediatik herriz herri buelta Zeanurira

Hasiera

Helmuga / Luntxa

Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta



Informazio gehiago 665 725 410 telefonon
Ez da apuntatu behar

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA

Adinekoai tratu onaren gaineko jardunaldia Igorreko Kultur Etxean**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateko erakunde autonomoa dan Arratiako Egoitzak, Etika eta tratu ona adinekoai gaiari buruzko jardunaldia antolatu dau. Urri lehenengoaren 23an izango da Igorreko Kultur Etxean, 10:30etik aurrera.

Topaketan, hirugarren sektoreko profesionalak, egoitzan dagozan personen zaintzaileak eta senideak, erakundeetako arduradunak, eta Amorebietako Institutua eta Zulaibarko Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleak hartu ahal izango dabe parte. Zulaibarrek Mendekotasun Egoeran dagozan Personak Artatzeko Teknikarien Prestakuntza Ziklo barri bat antolatu dau; izan be, gaur egun, lan-eskari handiena daukan jarduera profesionaletako bat da hau.

Jardunaldian, Bizkaiko Foru Aldundiko Balorazino eta Orientazino zerbitzuburu (Mendekotasuna

eta Desgaitasuna) Lourdes Zurbano-beaskoetxeak eta Deustuko Unibersidadeko Bioetika, Etika Profesional eta Osasunaren Psikologiako Esku-hartzeen arloko irakasle Marije Goikoetxeak hartuko dabe parte, beste aditu batzuen artean.

Arratiako Egoitza

Arratiako Egoitzako zuzendariak, Naiara Zamalloak, jardunaldiaren maila nabarmendu dau, bai hirugarren adinekoen eremuan puri-purian dagoan gai berezi bat jorratzeagaitik, bai konbidautako hizlarien izen onagaitik. Zamalloaren eretxiz, Arratiako Egoitzaren eginkizunaren oinarria da "beti personen duintasunaren alde egitea". Halanda ze, Arratiako Egoitzak Libera-Care arauagaz egiten dau behar; izan be, arau horrek lotura bako egoitza dala adierazoten dau, eta adinekoen bizi-kalidatea hobetzen daben laguntza-aukerak eskeintzen ditu.

IGORRE

Inbiu Egunean, herriko alkarteak zunba euskeraz egingo dabe lau gunetan**Igazko Inbiu Eguneko bazkaria.****Erredakzioa**

Hamaseigarren Inbiu jaialdia urri lehenengoaren 17an izango da. Urtero lez, Igorreko Euskera Planekoak egunari alde ludikoa emon gura izan deusie eta mota guztietako jantzak euskeraz egin daitezkeza erakusteko, Zumbajira antolatu dabe zapatu goizerako.

Ismael Pereiraren gidaritzapean "herritik zehar, eta lau gunetan bananduta, herriko alkarteak eta

herritarrak jantzan ikusi ahal izango doguz. Alkarteak guneetan banandu dabez eta adi segidu beharko deusie zunbako mobimentuak" azaldu deutso BEGITURI Amaia Arauzo Euskera Planeko Teknikariak.

Musika eta jantzas betetako eguna

Zunbajirak emongo deutso hasikerea egunari, 11:30ean Kultur Etxeko plazatik abiatuko dira partaideak lehenengo gunera, Agirre

Lehendakaria 9 portalearen aurreko plazatxora, hain zuzen be. Horrik, Olabarrira eta Olabarritik futbol zelaira, eta amaitzeko udaletxe ondoko frontoira.

Hiruretan herri bazkaria izango da. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira Gau Loran, Jubilatuen tabernan eta AZ Rugby tabernan. Helduentzako 13 euroko prezioa dauka bazkariak eta umeentzako 8 eurokoa. Bazkalostean Karaokea egongo da eta jarraian, AMEk antolatuta, Jokaldi taldeagaz erromeria.

Euskaldun aktiboak

Hamaseigarren urte honetan be, herri gogoa aktibau gura dabe Euskera Planekoak, pasibotasuna alde batera itxi eta aktibo izan gaitazan, euskerearen alde egotetik euskeraz bizi izatera pasau gaitazan. Ildo horretatik, "hizkuntza eskubideen urraketak salatze dagozan bideen barri emongo da Inbiu Egunean, aurreko astean martxan jarri edan kanpainari segida emoteko" dinoe.

Euskera Planak herritar guztiak animau gura dauz euskeraz bizi gura dot kamisetea jantzita joan daitezcan Inbiu 2016 jaialdira.

AREATZA

**Saldutako pintxoak.****Areatzako Jaietan ia mila euro batu ditue errefujiaduentzat****Erredakzioa**

Errefujiaduen alde dirua batzeako, Areatzako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak jaietako txupinazo egunean pintxoak ipini ebezan salgai. "Ekimena oso arrakastatsua

izan zan, alde batetik herriko persona askok parte hartu ebelako pintxoak egiten eta bestetik ia 1.000 euro batu ziralako". Dirua Zaporeak proiektura bideratuko da, Grezian errefujiaduak jaten emoten diharduan taldeari.

IGORRE

Arratiako parrokiak eta ermitak eraso ugari sufridu dabezala salatu dau Arratiako Eleizak**Erredakzioa**

Garagarrietik lapurretak eta pintaketak egon dirala Lemoa, Artea, Igorre eta Zeanuriko eleiza edo-eta ermitetan salatu dau Arratiako Eleizak. Azkena, urri lehenengoaren 6ko goizaldean izan zan. Orduan Igorreko parrokiako arkupeetan, "erre ezin izan zenituzten sorginen bilobak gara" esaldia agertu zan ate nagusian eta egurrezko zutabe bitan, sinbolo feministak. Jose Mari Kortazar parrokoak, horrek ekarri dauan gastua kritikau eban "ez dabe euren baserria pintauko, ezta gustukoan daben lokala. Hobe garbiteka diru publikoagaz edo beste baten diruagaz egitea" esan eban, eta Igorreko Udalarri garbitzeko brigadea atoa bialdu izana eskertu eutsan.

Garagarrilean hainbat sabotaje eleizeari

Garagarrilean, lapurreta, lapurreta saiakerak eta kalteak antzeman

**Eleizea pintaketakaz.**

ebezan eskualdeko parrokia eta ermitetan. Igorre eta Artea sakristietan, barbarako, lapurrak sartu ziran. Igorren ez eben ezer lapurtu baina sarrerako hesia apurtu eta dana botata itxi eben. Artean, ordenagailu bat ostu eben.

Gorbeiko kurutzeko Andra Mariaren irudia koroa barik agertu zan, eta Lemoako parrokiaren lapurretak egin eta pintaketak be agertu ziran uda hasikeran. Atzen urteotan, gainera, Arratiako hiru ermitetan kanpaiak ostu dabez.

IGORRE

Igorreko jubiladuak ikastaroak antolatu ditue



Igorreko jubiladuen juntako kideak.

Igorreko Jubiladuen alkarteak Igorreko Udalgaz alkarlanean, adinekoen beharrianai egokitutako udagoieneko programazinoa aurkeztu dau.

Teknologia barrietan, legedian eta osasun jabekuntzan formakuntza jasoko dabe, "Igorren elementu aktiboak izateko eta gizarteari ekarpen handiak egiteko". Igaz egindako inkestetan oinarritu dira ikastaro, berbaldi eta txangoak antolatutako eta Osasunaren Mundu Erankundeak sustatutako "Edadeko personakaz uri atseginak" mundu mailako sarean sartzeako lehenengo pausuak emoten hasi da Igorre. Jubiladuen alkarteak 780 bazkide inguru ditu.

Erredakzinoa

Programazino honen helburua "biajeetan bakarrik ez oinarritzea izan da, jentea horretan bakarrik ez daitela gelditu. Orduan udalgaz kontaktuan jarri ginan eta diru bat ipiniko dau. Baina antolakuntza, segmentua eta dana, jubiladuak egingo dogu" azaldu deutso BEGITURI Jesus Mari Anzola Igorreko Jubiladuen alkarteko idazkariak.

Bazkideen beharrianetatik sortutako programea da eta bost ikastarok osotuten dabe udagoieneko eskeintzea. Euskeraz alfabetatzeko ikastaroa izango dabe jubiladuak AEK-ko irakasle baten eskutik. Helburua euskeraz irakurteko erreztasuna hartzea da eta BEGITUKO euskerea ulertutea, beste gauza batzuen artean. Informatika ikastaroak be egongo dira, oinarritzko maila eta maila aurreratuan. Egurra landuteko tailerra eta eskulanak barriak dira; izan be, hainbat bazkidek eskatu ebezan igaz, bazkideen nahiak jakiteko egindako inkestan.

Sukaldaritza ikastaroak osotuten dabe udagoieneko programazinoko ikastaro eskeintzea. Bizirauteko sukaldaritza eta Gabonetako sukaldaritza izeneko ikastaroak dira. Izan be, edade honetako andra ea danak sukaldari onak izan arren, gizonetako askok ez dabe sekula jatekoa prestatu. Ikastaroaren idea kasu konkretu batetik sortu zan eta Laratz sukaldaritzaren eskutik, Ametz Garbeto txokoa izango dira eskolak. "Bazkide bateri andrea gaisotu eta gizonak ez ekian nondik urten be ez, eta esan euskun ikastaro bat egin behar ebal" azaldu dau Anzolak.

daritza izeneko ikastaroak dira. Izan be, edade honetako andra ea danak sukaldari onak izan arren, gizonetako askok ez dabe sekula jatekoa prestatu. Ikastaroaren idea kasu konkretu batetik sortu zan eta Laratz sukaldaritzaren eskutik, Ametz Garbeto txokoa izango dira eskolak. "Bazkide bateri andrea gaisotu eta gizonak ez ekian nondik urten be ez, eta esan euskun ikastaro bat egin behar ebal" azaldu dau Anzolak.

Mendi urtekerak, Nordic Walking eta txangoak

Zahartze aktiboaren filosofian, Igorrekoak argi daukie ibilteak on egiten deusala osasunari, gorputza sasoiaren mantentzen eta bizipoza suspertu egiten dau-lako. Igaz hilean behin mendi urtekerak egiten hasi ziran. Jentearen erantzuna oso ona izan zanez, aurten be mantentzen egin dabez mendi ibilaldiak. Eta lau urtekerak horrezaz gainera, martxa nordiko teknikeagaz, Nordic Walking, beste lau ibilaldi antolatu dabez. Atzen honeetarako, Ultreia klubeko monitorea biren laguntza izango dabe. Biajeai jagokienean, urrietan

Errioxa eta Saloura, eta zemendian Madrilerako txangoak prestatu ditue.

Osasuna jagoteko jakin beharrekoak

Berbaldiak osasuna eta herentzia daukie gaitzat. Iktusaren sintomak eta egin beharrekoak, oinarritzko sorospinak, eta desfibriladoreak erabilten ikasiko dabe interesatuta dagozan Igorreko jubiladuak. "Igorren desfibriladoreak dagoz, Kultur Etxean, udaletxean eta abar. Eta jentear erabilten jakin behar dauz, jubiladuak be bai. Batez be jubiladuak" dino Anzolak. Galdakao-Usansolo ospitaleko erizain batek emongo dau tailerra.

Igorreko osasun zentroko personalak, etxean euki beharreko botikina eta jausialdiak zelan ebitau azalduko dabe. Eta Miriam Herbonen eskutik, barreterapiaren onurak ezetuteko aukerea izango dabe.

Azkenik, testamentu eta herentziaren gaineko berbaldia UPV-EHUko Zuzenbide irakasle batek emongo dau.

Igorreko jubiladuen alkarteak herrian antolatuten diran ekintza ugarritan hartzean dau parte. Berbarako, Inbiu Eguneko bazkaria eurak antolatuko dabe. "Lehenengotik aurrekontuak eskatu, gero ordain txartelak egin, horreen segmentua egin, karpa montau, mahaia ipini, bazkaria zerbitzatu..." herri bazkaria aurrera eroateko behar dan guztia egingo dabe alkartekoak.

Igorrek edadekoakaz atsegina izan gura dau

Javi Zuluaga alkarteko presidentek eta Jesus Mari Anzola idazkariak Nagusiak Bizkaiko Jubilatuta eta Petsiodunen Elkartearen be hartzean dabe parte. Arratia eskualdeko ordezkariak dira. Arratia eta Zornotzako jubiladu alkarteak batzartu egiten dira hiru hilerik behin, beste herrietan zer egiten daben ikusi eta eurena erakusteko.

Nagusiak Bizkaiko Plataformea OMEren "Uri atseginak" proiektuan dago eta orain Igorreko Udala sare horretan sartzeako lehenengo pausuak emoten dabil.

"Edadekoakaz atsegina" izateko, herriak, besteak beste, zahartze aktiboa, partaidetza soziala eta segurtasuna bultzatu behar ditu, personak, zahartuz doazen neurrian, bizi-kalidate hobea izan dagien. Eta herriko bizimoduaren zortzi adierazlegazko egoerea zein dan aztertu behar dau. Adierazle horreek OMEk ezarri ditu eta eragina daukie edadeko personen osasunean eta bizi-kalidatean.

Honeek dira adierazleok: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, partaidetza soziala, begirunea eta gizarteratzea, herriarren partaidetzea eta enplegua, komunikazinoa eta informazinoa, eta komunitateko zerbitzuak eta osasun-zerbitzuak.

ARANTZAZU

Indarkeria matxistearen kontrako konzentrazinoa egin eben Arantzazun

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 9an, aurreko astean herrian gertatutako genero indarkeria kasu bat salatuteko, eraso matxistea sufridu eban andeari solidaritatea adierazteko eta andren kontrako eraso gehiagorik egon ez daitezkan konzentrazinoa egin eben Arantzazun herritarrek eta ordezkari instituzionalak.

Udalak deituta, "Ez Arantzazun, ez inon, eraso sexistarik ez" inoan pankarta baten atzean batu ziran

herritarrek. "Arantzazuko Udalaren ardura da indarkeria matxistearen aurkako kultura bultzatzea, eta horri lotuta, esparru guztietako eragilei laguntzea andren aurkako eraso gehiagorik ez egoteko, eta, egon ezker, erantzun bateratuak emoteko" azaldu eban Udalak, konzentrazinora deitzean eban bandoan. Alkarretaratzean, Arratiako hainbat eragile egon ziran, andren sareko partaideak eta herrietako zinegotzi eta alkateak, beste batzuen artean.



Arantzazuko konzentrazinoa.

ARRATIA

Erreka baztarretatik, Zeanuritik Bediara



Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Arratiako Ibaiertzetatik VII. Martxa antolatu dau urri lehenengoaren 18rako. Martxa honegaz, Mankomunitateak Europako Mobikortasun Jasangarriaren astea ospatu gura dau eta oinezkoentzako ibilbideak berreskuratu.

Urtekerea Zeanuriko plazatik izango da 08:30ean. Urtero lez, martxako egunean autobusa egongo da partaideak abiapuntura eroateko. Bediatik urteko da 08:00retan eta Arratiako herri guztietatik pasauko da, baita Diematik be. Bediara heldutakoan barauskarria egongo da indarrak

barrituteko, eta 14:00etan, herritara bueltetako autobusa urteko da Bediatik. Martxan parte hartzeako ez da izena emon beharrik eta doban izango da.

Joan dan urtean 100 lagun baino gehiagok hartu eben parte.

Kotxe Bako Eguna

Egun horretan be, Kotxe Bako Eguna ospatuko dabe Bedian. Bizikletearen erabilera bultzatzeko helburuagaz, herritik zehar bizikleta ibilbidea egingo dabe eta bide segurtasun zirkuitua be egongo da, modu seguruan ibiltzen ikasteko. Zirkuituan zein bizikleta martxan parte hartzean dabenen artean, bizikleta bat zozketatuko da.

BEINKE!

BEINKE! Merkatarien euskera taldea

BEINKE! merkatarien euskera taldea 2003an sortu zan, eta ordutik martxan dago Igorren merkataritza, ostalaritza eta zerbitzugintza arloan euskerearen erabilera bultzatzeko.

BEINKE!

Gogora ekarri behar dogu 2001ean kale erabilerearen lehenengo neurketea egin zala Igorren, eta emoi-


parte-hartze prozesurik jentetsuena: Igorreko Euskera Plana diseinetako prozesua. Merkatariek be Euskera Planaren diseinuan parte hartu eben.



Igorreko merkatariek Euskera Planaren diseinuan parte hartu eben.

tzak sortu eben kezka eragin ebala gaur egunera arte Igorren egon dan

Hori holan, 14 merkatar/ ostalarik osotutako taldea sortu zan



Egun merkataritza arloan dagoan hitzarmenaren leloa.

eta 4 urterako plana 2003-2006 diseinatu eben. Hamabostean behin ibili ziran batzarrak egiten eta helburu zehatzak zehaztu ziran: zerbitzua euskeraz emotea, euskaldunakaz euskeraz egitea; denda, taberna edo zerbitzu barruan euskeraz lan egitea; kanpokomunikazioa eta publizitatea euskalduntzea; sektoreko langileak euskeraz trebatzea; hornitzaileak apurka euskeraz egitea, eta instituzinoakaz euskerea bakarrik erabilteko elkarlana sustatzea.

Hasikerako urte horreetan be, gaur egun erreferentzia bihurtu dan "Nik saldu zuk erosi biok euskeraz" kanpaina martxan ipini zan erabilera bultzatzeko.

2006an bigarren kale erabilerearen neurketea egin eta plana beste bi urtez luzatzea ebatzi zan, 2006tik 2008ra. Urte horreetan sensibilizazio kanpainak egin ziran eta merkatariei lagunduteko zerbitzuen katalogoa sortu eta horren barri emon zan: itzulpen laburrak, fakturak, bisita txartelak, menuak, errotuloak eta kartelak.

Planaren balorazioa egin zan eta ondorioztatu zan ekintza eta kanpaina zehatzez aparte, beharrezkoa zala euskereagazko konpromiso trinkoagoa. Idea horretatik 2010ean TELP tailerra "Taller D'Espai Lingüístic Personal" antolatu zan merkatarientzat. Norberaren hizkuntza jarrerak eta portaerak aztertzeko, egoera gatazkatsuetan zelan jokatu ikasteko eta azken baten euskaldun aktiboagoak izateko.

Horren atzetik etorri zan hizkuntza ohituretan eragiteko "Probatu euskeraz" kanpaina. Kanpaineak



hiru astez iraun eban eta 60 establezimenterik parte hartu eben. Hizkuntza ohiturak aldatzeko baldintza egokiak ipini gura izan ziran merkatariekin batera arteko hizkuntza ohituretan eragiteko eta ezagutzatik erabilerara pasetako dagoan jauzi horretan igorretarrak euskeraz probatzera animetako.

Horregaz batera, ezagutza eta erabilera neurtzeko diagnostikoa barriro be egin zan eta konpromisoaren ideatik abiatuta, 2012an merkataritzan euskerearen erabilera eta presentzia bultzatzeko hitzarmena sinatu zan herriko komertzioakaz eta tabernakaz.

Hitzarmenaren ostean sortu zi-

ran merkatariei begirako euskera ikastaroak eta 2013tik 2015era talde bi ibili dira euskera ikasten herriko eskalategian. 2016an taldeetako bat sortzeako ikasle nahikorik ez egoala eta, talde barik gelditu ziran ikasleak Berbalagunen ibili dira, Beinkekoen laguntzeagaz.

Horren ostean be antolatu dira sensibilizazioa lantzeako merkatariei begirako saiok Beinkekoak sortu eta bideratutakoak.

Igorreko establezimenteru guztietan euskerearen erabilera eta presentzia bultzatzeko talde eragilea da, aktiboa eta konprometidua, herriko euskalgintzaren parte-hartzaile eta bultzatzaile.

Euskera Planak bere sorreratik martxan ipini dauzan kanpainakaz bat egin izan dau Beinkek eta oingoan, hizkuntza eskubideen urraketak salatzeako kanpainan be parte hartu dabe.

HITZARMENA

1.-ERROTULUAK, INPRIMAKIAK, PUBLIZIDADEA...

Aurrerantzean, idatziz egingo dodazan komunikazio bariak ele bietan edo euskera hutsean egingo dodaz, euskereari lehenetsun espaziala emonaz.

2.- BEZEROAKAZ BERBAZ

Euskaldunak garanez, bezero/bazkide euskaldunakaz euskeraz egiten ahaleginduko gara eta lehenengo berbea euskeraz egingo deutsegu ezezagunai be.

Ez dakigunez euskeraz, dakiguna behintzat erabiliko dogu: "Egun on", "Eskerrik asko" eta abar. Langile barri bat kontratatu behar badot euskalduna izan daitela ahaleginduko naz.

3.- BARNEKO FUNTZIONAMENTUA

Barruko funtzionamentuan euskerea be erabiliko dot.

4.- EUSKERAZKO KLASEAK, UDALA

Udalak laguntza teknikoa eskeintzeko konpromisoa hartzean dau, hala nola, itzulpenak, errotuloak, eta abar, prozesu honetan laguntzeko.



Hitzarmena sinatu eben merkatariak.



Egungo Beinke taldeko kide batzuk.

Urte honeetan guztietan, asko eta asko izan dira merkataritzan euskerearen erabilera eta presentzia bultzatzeko Beinkek bideratu dauazan kanpainak. Lerro honeetan ez dira danak jaso, baina bai

esanguratsuenak.

Talde aktiboa izan da eta izaten jarraitu gura dabe, horregaitik merkatari euskaldun gehiago erakarri gurako leukie taldera. Izan be, argi daukie "danon indarra



beharrezkoa dala normalizazioan aurrera egiteko eta ekinez egiten dala ezina". Beinken parte-harzteako nahikoa da Beinkekide bateri esatea edota udaleko Euskera Zerbitzura deitzea.



HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakargia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU
ehbildu

PITCH & PUTT

Espainiako Pitch & Putt Txapelketan izango da Kepa Ikutza dimoztarra



Erredakzioa

Kepa Ikutza Espainiako Autonomien arteko Pitch & Putt Txapelketan jokatu du urri bigarrenaren 23an Ciudad Realen Euskadiko selekzioagaz. Saillkatutako bederatzia proba egin behar izan dabez. Urri lehenengoaren 4an, proba baten faltan, Gasteizen bigarren egin ondoren sailkatu zan dimoztarra, Espainiako Golf Federazioko antolatutako dauan txapelketarako.

Garagarrilean Andorran jokatutako Munduko Txapelketan be egon zan arratiarra Euskadi ordezkatzan. "Lau joan ginan, Gipuzkoako hiru eta laurok. Euskadiko selekzioak zortzigarren egin eban hamarretik. Euskadin Pitch & Putt-ek denpora gitxi daroa eta gitxi gagoz. Eta hori asko igarten da. Hemen 100 lizentzia inguru dagoz eta Katalunian 30.000 inguru. Onenak irlandarrak dira"

dino Ikutzak.

Formato txikiko golf-a

Kirolaren izena, Pitch & Putt, jokatutako paluen izenetik dator. Hiru palugaz jokatuten da; golf-a, barriz, 14 palugaz. Distantziak be txikiagoak dira, golf-ean 300 eta 500 m. ingurukoak diran bitartean, Pitch & Putt-ean, 90 m. ingurukoak dira. Dimako Lapurriketan, Gasteizen eta Oñatin entrenetan dau Ikutzak.

Gurean gitxi dira kirol hau praktketan dabenak. "Ni irakasle bategaz hasi nintzan orain dala zazpi urte. Entrenetan lagunakaz joaten naz, zelai desbardineta. 2013an, Munduko Txapelketarako bi klasifikau ginan Euskaditik, neu lehenengo, eta horixe izan zan nire lehenengo txapelketa inportantea" azaldu deutso BEGURI. Aurten, Euskadi mailako Espainiako txapelketarako puntuagariak ziran Federazinoko proba bi irabazi ditu Ikutzak. Biak Oñatin.

DUATLOIA

Duatloi Herrikoia Igorren

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 24an, Oskar Garro Lagun Taldeak antolatuta, Igorreko IV. Duatloi Herrikoia izango da eskoletan. Hiru kategoria egongo dira: 6 urtera artekoa, 7 eta 12 urte bitartekoa eta 13 urtetik gorakoa.

Sei urte arteko umeen probak izango dira lehenengoak. 17:00etan hasiko dira eta 300 m. galapan, 900 m. bizikletan eta beste 300 m. galapan egingo dabez. Ordu erdi beranduago 7 eta 12 urte bitartekoak hasiko dira. Honeek 900 m. galapan, 1.200

bizikletan eta beste 900 m. barrero be galapan. Nagusienak, 18:00etan urtengo dira eta 2.400 m. arineketan, 5.800 m. bizikletan, eta 2.400 m. arineketan egingo dabez. Proba amaitutakoan partaideentzat kopautxua eta oparien zozketea egongo da.

Izen emotea

Izen emotea 16:00etatik 16:45era izango da Igorreko eskoletan. Duatloian ume eta nagusiak hartu ahal dabe parte eta gura izan ezker, gurasoak lagundu ahal deutsee umeai.

Oskar Garro Lagun Taldeak

IGORREKO IV. DUATLOI HERRIKOIA

IRAILAREN 24an IGORREKO ESKOLETAN
OSKAR GARRO LAGUN TALDEAK ANTOLATUTA

TALDEAK	KORRIKA	BIZIKLETA	KORRIKA	BIZIKLETA
6-9 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
7-12 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
13-17 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
18-25 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
26-35 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
36-45 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
46-55 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
56-65 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
66-75 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
76-85 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
86-95 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m
96-105 URTE	300 m	300 m	300 m	300 m

Antolatzailea: Oskar Garro Lagun Taldea
Aukeratu "begitu" eta gurean zuzenean izango du zozketarako parte hartzea.

duatloia antolatutako dau ziklismo egokitutako txirindulari igorretarrari lagunduteko. Jasoten dan dirua, alde batetik duatloia bera pagetako eta bestetik ziklisteari entrenamentuakaz lagunduteko eta txapelketetan parte hartzeako erabilten da.

FUTBOLA

Ligea hasi da

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen taldea Bigarren Mailan estrenau da. Urte gaxta izango da arratiarentzat, maila honetan talde indartsuak dagoz eta. Horren adierazle da jokatutako partidu biak galdu dituala Arratiak. Lehenengo partidua Gasteizko Aurrrera taldearen kontra jokatuko eban, 6 eta 2 galdu eban Arratiak. Hilaren 11n ostera Igorren jokatuko eban Nuestra Señora de Belen taldearen kontra, eta Arratiak 1 eta 2 galdu eban. Hurrengo partidua Berriozar taldearen kontra jokatuko dau Arratiak hilaren 25ean.

Gizonezkoen taldea barriz, Galdakoren kontra neurtuko da ligako lehenengo partiduan, hilaren 18an.

BOLA JOKOA

Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea Alzustan jokatuko da

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 2an, domekan, Alzustako bolalekuan jokatuko da Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea, San Migel jaien egitarauaren barruan. Udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatuko aukerea: Alzustak, Alzustak, Asterrriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerimendik eta Uribe. Bakarkakoan Jon Aranguren izan zan irabazlea.

Taldea 4 bolarik osotuko dabe, bolari bakoitzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatu

ten dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, gerrea jokatuko litzateke.

Txapelketeak Zeanuriko Udalaren babes eta Alzustako Ellauri Hoteleko Kiloterdi jatetxearen laguntza izango dau. Sariak honako honeek izando dira: talde irabazleak 120 € eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriak bazkalteko edo afaltzeko aukerea izango dau Kiloterdi Txokoan, Ellauri hotelaren jatetxean; bigarren saria, 100 eurokoa izango da eta hirugarrena 80 eurokoa.

Txapelketea hasi aurretik, 17:00etan umeai be bolan jokatze eta kirol hau ezagutzeko aukerea eskeiniko jakie eta euren arteko lehiaketea antolatuko da.

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Uxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21. 20112 Artea

Izen-abizenak:
Izenbidea:
Herria:
Telefonia:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
mutila zela ez da

MENDI LASTERKETEAK

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea urri bigarrenarean 1ean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 1ean izango dira Gorbeia Suzien Ternua (GST) Lasterketa Nagusia eta Lasterketa Herrikoa. Umeen lasterketea, barritz, hurrengo egunean izango da. Aurreko egunetan, Manu Cordova eta Alberto Iñurrategiren proiektzio eta berbaldiak egongo dira. Urri lehenengoaren 18an, ibilbidea ezetuteko aukera egongo da. Hitzordua goizeko 09:00etan Zeanuriko plazan izango da.

Lasterketa Nagusiak 2015ean estreinau zaneko ibilbide berbera izango dau, 31 kilometroko ibilbidea eta 2.400 metroko desnibel positiboa. Lasterketa Herrikoa, ostera, aldaketa txiki bat izango dau lehenengo zatian; izan be, Arrabako landara arte lasterketa nagusiaren ibilbide berbera izango dau. Holan, ibilbidea 22 kilometrokoa izango da eta 1.340 metroko desnibela izango ditu. Lasterketa Herrikoa, galapan egin beharrean oinez be egin daiteke.

Parte-hartzaileentzat haurtzaindegi zerbitzua egongo da eta masaje gunea, dutxen ondoan. Zaletuak korrikalari guztiakaz batera bazkalduteko aukera izango dabe, 8 euroren truke bazkarirako txartela erosi ezker. Parte-hartzaileen artean opariak zozketatuko dira. Sari sano potoloak izango dabez kategoria bakotzeko lehen sailkatuak eta lehen postuan heltzean diran lehen andrazko eta gizonezko arratiarrak be saria eukiko dabe.

Gorbeia Suzien Ternua 2016,



Tofol Castanyer, igazko bigarren sailkatua, helmugara sartzean.

ISF National Championship proba izango da aurten, eta nazinoarteko eliteko korrikalari garrantzitsuak izango dira bertan.

Herrian jai giroa

GST mendi lasterketa bat baino gehiago da eta Gorbeia Suzien taldekoak lau eguneko egitaraua antolatu dabe. Holan, egunetik domekara, mendiagaz lotutako era askotariko ekintza ugari egongo da: berbaldiak, bazkariak, slackline, erromeria, umeentzako puzgarriak eta abar. Lasterketa egunean Tri-kizio taldeagaz erromeria egongo da, gero herri afaria eta ostean Disk Breakers-ek musikea ipiniko dau.

Egitaraua

Urri lehenengoak 29, eguena
19:30ean, Manu Cordovaren *Shiva, una aventura en el Rowling*

ikusentzuekoaren proiektzioa eta berbaldia Igorreko Kultur Etxean.

Urri lehenengoak 30, barikua
17:30etik 19:30era, GST Lasterketa Nagusiko eta Herrikoiko dorsalen banaketea frontoian.
19:30ean, *briefing*-a. Berbaldi teknikoak.

20:30ean, Alberto Iñurrategiren *Porrotaren alde* ikusentzuekoaren proiektzioa eta berbaldia. Zeanuriko frontoian.

Urri bigarrenak 1, zapatua

07:00retatik 08:30era arte, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko dorsalen banaketea frontoian.

08:30ean, material ikuskapena.
08:45ean, danak urtekeran. Lasterketarien aurkezpena.

09:00etan, GST Lasterketa Nagusia eta Lasterketa Herrikoia-
ren urtekeria. Disk Breakers-ek ipiniko dau musikea eta herrian puzgarriak, denda espezializauen postuak eta beste ekintza asko egunean zehar.

13:30ean, bazkaria.

14:00etan, sari banaketea.

17:00etan, slackline.

18:00etan, Tri-kizio taldeagaz erromeria.

20:30ean, jatekoa frontoi txikian eta sagardo kupela.

Ondoren, Disk Breakers-ek musikea ipiniko dau.

Urri bigarrenak 2, domekea

11:00etatik aurrera, umeen lasterketarako izen emotea.

12:00etan, umeen lasterketea.

Ostean herri kirolak umeentzat.

DUATLOIA

Ibilbide barria izango dau Zeanuriko Duatloiak



Igazko edizinoko urtekerako argkia.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 17an jokatu da Zeanuriko II. Duatloia arrastiko lauretan. Hiru zati ditu probeak. Lehenengoak 7,3 km. ditu eta arineketan egitekoa da; bigarrenak, 16,7 km. ditu aurten, eta bizikletan egin behar dira eta hirugarrenak 1,5 km. arineketan egiteko.

Arineketan egiteko zatiak igazko ibilbide bera daukie; baina bizikletan egin beharrekoa apur bat luzeagoa da: igaz 15,33 km. izatetik, aurten 16,7 km. izatera pasau da. Hauze da ibilbidea: Plazea, Soloeta, Lontzo iturria, Itzuna, Emaldia, San Blas, Itzuna, Alzusteta eta Arregia.

Arineketako lehenengo ibilbidea, plazea, San Juan, San Justo, Egileor, Angoitia eta plazea izango da. Bigarren zatian partaideak plazatik Igertualdera eta barriro plaza-

ra joango dira.

Umeen proba goizean

Zeanuriko duatloia herrikoa da eta bertan ume zein nagusiak hartu daikie parte. Umeen proba goizeko 11:00etan izango da eta euri egokitutako ibilbidea izango dau. Hiru urtetik hamasei urtera artekoak lehiatuko dira goizean.

Bazkaltzeko, 5 euroren truke, makarroiak, oilaskoa eta pastela eskeiniko dabe antolatzaileak.

Izen emotea

Zeanuriko duatloian parte hartzeako online emon daiteke izena mendiduatloia.eus webgunean. Holan egin ezker 15 euroko prezioa dauka proba nagusian parte hartzeak. Egun berean be emon daiteke izena 20 euroren truke udaletxe azpian 14:30etik 15:30era.

U» URKULLU » LEHENDAKARI

ERAIKI EUSKADI MIRA AL FUTURO


ZUREA BOZKATU




eaj-pnv.eus
urkullu.eus

KONTZERTUAK

Dimetal Fest, hazi eta hobetuteko bokazinoagaz jaiotako metal musikako jaialdia hilaren 24an



In Mute taldeak Dimetal Fest-en joko dau.

Erredakzioa

Mahai-ingurua, txikigunea, Txan magoa, bertsolariak eta batez be, metal musikearen azpiestilo desbardinak erakusten dabean kontzertuak izango dira Diman urri lehenengoaren 24an egun eta gaubez.

Barrikuntzak be badagoz. Aurten goizeko mahai-inguruan bandai emon gura izan deutsee protagonismoa. Horregaitik jaialdian joko dabean taldeetako partaide batzuk kontauko dabez euren esperientziak. Estefania Garcia kartel buru dan In Mute taldeko abeslaria, Gorka Mena, Etorkizun Beltza, eta Sergio R. Txabarri Erasol taldekoa izango dira mahai-inguruan euren esperientziak kontauko dabezanak, EITBko Dani Alvarez kazetariaren laguntzeagaz.

Beste barrikuntza bat umeentzako jarduerak dira. "Pentsau dogu umeak euren lekua behar dabela" dino Itxaso Petralandak. Izan be, gurasoak umeak ez etorten dira eta holan danak, umeak zein gurasoak, hobeto pasauko dabela uste dabe antolatzaileak.

Herriko tabernai protagonismoa eta etekina emoteko, metal poteoa egongo da ordu batetatik aurrera. Ondoren bazkaria frontoi handian. Bazkarian Txan Magoa egongo

da. Postreagaz batera agertuko da umeak entreteniduteko. Bertsolariak be egongo dira: Fredi Paiak eta Arkaitz Estiballesek 20 minutu inguruko saioa eskeiniko dabe. Bazkarirako txartelak Dima eta Igorreko tabernetan erosi daitezke.

Egun horretan, Unai Endemaño argazkilariaren argazki erakusketea egongo da Dimako Liburutegian.

Metal estilo desbardinak

Bazkalostean kontzertuak hasiko dira. Kontzertuen aurkezpenaren aurretik joko dau Oldies of the Grave Areatzako taldeak. "Esan euskuen etorri gura ebela jotzen, debalde. Eta ipini doguz eszenalekutik kanpo, Barullo tabernaren aurreko plazan, libre egoan lekuan eta denpora tartean" azaldu deutso BEGITURI Zalao Erañak. Heavy metal klasikoko kantu ezagunen bersinoak egiten dabez.

Seiretan, kontzertu ofizialak hasiko dira frontoi txikian eta Gaztetxean, txandaka. Incurseed Bilboko taldea izango da lehenengoa. Frontoi txikian joko dau. Folk, pagan, bikingo estiloko metala jotzen dau taldeak. "Gazteak dira baina Ukrainan, Hungarian... leku askotan jo dabe" dino Petralandak.

Hurrengo kontzertua Gaztetxean emongo dau Chivo taldeak. Cheel

Ghar taldea zan etortekoa baina arazo personal bat dala-eta, ezingo dira etorri. Chivok, stoner, metal eta rock arteko estilo "pisutsua" egiten dauala dino Petralandak.

Ondoren, Erasol talde euskaldunaren txandea izango da. Hasieran thrash metal egiten eben, baina orain rockeroagok dira. Zaratzuko taldeak 25 urte bete dauz aurten.

Laguntza zozketearen ostean, In Mute valentziarrak, kartel buruak, joko dabe. Taldea ezaguna egin zan 2014an, Wacken-eko The Metal Battle Lehiaketea irabazi ebenean. Steffi Garcia abeslariaren eztarik abots berezia, harrigarria egingo jakie taldea ezetuten ez dabena. Ondoren, Etorkizun Beltza taldeak joko dau Gaztetxean. Gernikakoak gure inguruko herrietako jaietan sano ezagunak egin dira aspaldi honetan.

Lizzies talde madrildarra izango da hurrengoa. Taldekide guztiak neskak dira. Arrakasta handiko rock gogor eta punk arrastodun heavy metal klasikoa egiten dabe eta salmenten 16. postuan egon dira. Espainia eta Euskal Herrian jo ostean, Europatik bira egingo dabe Frantzia, Alemania, Holanda eta Austrian joz.

Azkenik Gasteizko Black Seed taldeak emongo deutso amaiera aurtengo metal jaiari.

Finantziarioa

Hazi egiten ez dana, bertan behera geratu eta hil egiten dala eretxia, Dimetaleroak apustu handiagoa egin dabe aurten. Igazko jaialdiak 8.000 euroko aurrekontua izan eban eta 70 euroko superabita euki eben. "Diru-kontuak tabernetan ipini genduzan herritarrak jakiteko zenbat kostau zan. Aurten be gauza bera egiteko asmoa daukagu" azaldu deutso BEGITURI Ruben Sorro Dimetaleroak. Aurten 12.000 euro inguru gastetea aurreikusten dabe. "Igaz taldeai pagetako 2.000 euro inguru behar izan genduzan, aurten 3.300".

Diru iturri garrantzitsuena, frontoi txikian eta Gaztetxean ipiniko dabean txosnak dira. Erriak eta kamisetak be egongo dira salgai.

Dimako Udalak, gitxi gorabehera % 15a ipiniko dau, soinuua pagetako, eta herriko denda eta komertzioak be modu desbardinetan lagunduko dabe. Herriko ehun bat boluntariok be egingo dabe behar dana ondo urten daiten.

IKASTAROAK

Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik

Erredakzioa

2016-2017 ikasturteko udal ikastaro gehienetan izena emoteko epea hile honen bigarren hamabostaldian izango da. Arratian ikastaro eskeintza zabala dago. Aurreko zenbakian, Arantzazu, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko eskeintzaren barri emon genduzan. Hona, Areatza, Artea, Igorre eta Zeberioa dakargu.

Areatza

Urri lehenengoaren 19tik 27ra da Areatzako ikastaroetan izena emoteko epea, 10:00etatik 13:00etara udaletxean. Aurretik debaldeko demostrazioak egingo dira, jentek jakiteko ikastaroak zertan dautzan. Urri lehenengoaren 19an, 18:00etan, TRXen demostrazioa egongo da frontoian; hilaren 21ean, 18:15ean, Cross Fit; 21ean be, 18:45ean, Galapan taldea eta hilaren 22an, 19:30ean Pilates. Taldea sortzeako gitxienez 10 lagunek emon behar dabe izena. Ikastaro honek osotuten dabe Areatzako eskeintzea: Gimnasia, Eskulanak, Gimnasia Hipopresiboak, Cross Fit, Euskal Jantzak, Pilates, GAP, Zunba eta Zunba Txiki (12tik 16 urtera).

Artea

Arteak ikastaro eskeintzea barriztazeko asmoz, herritarrakana jo dau eretxia eta nahiak ezetuteko. Udal gobernuak "ikastaroak barriztatu, euskaldundu eta barriak sortu" gura ditu eta horretarako galdeketa bat bete eta udaletzeko idazkaritzan itxi behar dabe arteztarrak. Zortzi lagunek emon behar dabe izena, ikastaroa gauzatu daiten.

Orain arteko ikastaroak be eskeintzen dira. Helduentzako ikastaroak honek dira: Zunba, Yoga, Pilates, Aerobic, 3. Adineko gimnasia, Arte aplikauak eta Eskulanak. Umeentzakoak, barriz, beste honek: Euskal jantzak eta Zunba txiki.

Artean errolatutakoentzako izena emoteko epea urri lehenengoaren 19tik urri lehenengoaren 23ra izango da. Artean errolatuta ez dagozanentzat, barriz, hilaren 26tik 29ra.

Igorre

Igorren aurreko hiruhilabetean eskeinitako ikastaroak egin ahal izango dira 2016-2017 ikasturteko lehenengo hiru hilabetekoan, taldea osotuten bada. Horretarako gitxienez sei lagunek emon behar dabe izena. Tai Chi, Ariketa hipopresiboak, Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, Literatura txokoa, Jantza afrikarrak, Argazkigintza (hasikerakoa eta sakontzen), Zirkoa ikastaroa umeentzat eta Akrobazia aereoak gazteentzat. Aurreko hiruhilabetean atzen ikastaro hau debalde izan zan, baina oraingoan umeen ikastaroaren prezioan eskeiniko da. Izena emoteko epea urri lehenengoaren 16tik 29ra da.

Zeberio

Zeberion be aurreko ikasturteko eskeintzea mantentzen dabe. Hau da, Euskera ikastaroak, Zahar-barrizte ikastaroa, Gimnasia hipopresiboak eta Adinekoentzako gimnasia. Izena emoteko epea zabalik dago. Euskera ikastaroak Bizkaiko Euskaltegietan izango dira eta urri bigarrenaren 2a baino lehenago egin behar da matrikulea Zeberioko udaletxean.



NAIARA HORTZ Klinikak
Lehen Maila Agirre, 19
48140 Igortze
94 631 52 26

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Palo, Mendizola, s/n. 48530 LEMOIA, Biskaiak
Tel: 609 480 839 / 609 206 717

ANDREN JABEKUNTZA ESKOLEA

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolan dozena bat ikastaro estraineiko ikasturtean



Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen sortzaileetako batzuk.

Erredakzioa

Arratiako sarea osotuten daben andra alkarte, talde feminista, udal eta mankomunidade eta banakako andrak, urtaillean hasi eta bagilera arte Arratiako Jabekuntza Eskolako 2016-2017 ikasturteko egitaraua prestatzen ibili dira, "eskoleari itxura emoten, ahal danik eta egiturarik onena prestatzeko, Arratiako eskolea, danon eskolea izan daiten" Miren Urresti Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Teknikariaren berbetan. Eta holan, dozena bat ikastaro, berbaldi eta tailer antolatu dabez andren jabe-kuntza bultzatzeko.

Ikastarook zortzi atal tematikotan sailkatu ditue: Andren identitatea, Osasuna, Kultura birdefinitzen, Feminismoa, Indarkeria matxista eta Andra migraduen topagunea izenpean. Debalde dira aurtengo guztiak, eta ikastarora hasteko egunerarte emon daiteke izena Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuan.

Urri lehenengoaren 30ean, arrastiko zazpiretan, Eskolearen aurkezpena egingo dabe Areatzako plazan. "Aurkezpen parte

hartzailea, kalekoa eta ondo pasetakoa egin gura dogu, sorprezaz beteta" dino Urrestik.

Jentarte eraldatzeko prestakuntza

Jabekuntza Eskolearen helburua, prestakuntza emotea da, andren parte hartze publikoa handitu eta sendotzeko, eta jentarte eraldatzeko eragile aktiboak izan daitezcan andrak. Arratiako Eskolearen 2016-2017 ikasturterako eskeintzea, 11 ikastaro, berbaldi edo tailerrek, eta andra migraduentzako topagune batek osotuten dabe.

Andren identitatea landuteko hiru tailer dagoz. Lehenengoa Zelan egiten gaitue andrazko? izeneko, urri bigarrenaren 21 eta 22an izango da Arteako Kultur Etxean. Andra nagusientzako lidergo tailerra emongo dau Irantz Varelak martiaren 22, 29 eta aprilaren 5ean, Lemoako Kultur Etxean. Atal honetako hirugarren tailerra amodio erromantikoaren gainekoa izango da, martiaren 31n eta aprilaren 1ean emongo dana Dimako Batzar Gelan.

Osasunari jagokonean, tailer bakarra prestatu dabe eskolearen

lehenengo ikasturte honetarako. Menopausiaren gainean izango da, aprilaren 26 eta maiatzak 3an, Areatzako udaletxeko Kultur Areatoan, Desirak alkartearen eskutik.

Andrak kultura birdefinitzeko erremintak izan dagiazan ikastaroko bi egongo dira. Abenduaren 16 eta 17an, Iratxe Retolazak Irakurbide feministak literaturan izeneko emongo dau Dimako Batzar Gelan, eta zezeilaren 24 eta 25ean, partaideak Virginia Imazen gidaritzapean, emozino biologiko eta kulturalai buruz hausnartuko dabe, umorea eta andrazkoak lotzean dituan tailer-reen, Igorreko Kultur Etxean.

Feminismoan sakonduko dabe hurrengoko hiru tailerrek. Sexu-genero sistemeak herrigintzearen eremuan zelan eragiten dauan eta feminismoaren ekarpenak landuteko aukerea egongo da zemendiaren 3, 10, 17 eta 24an. Pili Alvarezek emongo dau ikastarora eta Zeanuriko udaletxean izango da. Urtilaren 12, 19 eta 26an Emagin alkarteak Feminismoaren historiaren barri emongo dau Lemoako Kultur Etxean, eta Tere Maldonadok Feminismoaren gaur egungo panorama teorikoan kokatzeko mapak eskeiniko ditu, zezeilaren 3 eta 4an Zeanuriko udaletxean.

Indarkeria matxisteari aurre egiten ikasteko, Maitena Monroyren laguntzea izango dabe arratiarrak. Izan be, zemendiaren 9an, Arantzazuko Erabilera Anitzeko Areatoan "Andra superbibienteak. Indarkeria matxisteari aurre egiten" izeneko berbaldia emongo dau Monroyk. Han, indarkeriatik bizirik atera diran andra batzuen aldarririk entzuteko aukerea egongo da. Urtilaren 28an, barriz, auto-defensa feminista tailerra egongo da Bediako Eskolan.

Atzenik, andren sareak andra migradu guztiak, topagunean parte hartzerantz konbidatu gura dauz. Igorreko Kultur Etxean batuko dira urri bigarrenan, zemendian eta abenduan, hilean bitan, Miriam Herbon dinamizatzaileagaz.

Maiatzaren 27an, ikasturtearen ebaluazioa egingo dabe Arantzazuko Kultur Gunean.

JANTZEA

Euskal Jantza alardea eta Durundi Barriren urteurren jaia urri bigarrenaren 1ean

Erredakzioa

Lemoako Durundi Barri euskal jantza taldeak 50 urte bete ditu aurtun. Mende erdia ospatutako urri bigarrenaren 1ean urteurren jaia egingo dabe eta urri lehenengoaren 25ean alardea. Ekitaldi bi honeen arteko aste osoan euskal jantza lotutako erakusketak egongo dira.

Alardean 7 taldek hartuko dabe parte: Basauriko Agintzari, Edurre eta Basauritar; Arrigorriagako Aritz Berri; Ugaoko Etorri; Usansoloko Oin Arin, eta Durundi Barri bera dira parte hartuko daben taldeak.

Astean zehar, hiru erakusketak egongo dira kiroldegian. Batean, euskal jantzetako Bizkaiko 20 jantzi egongo dira ikusgai aste osoan. Urri lehenengoaren 27an musika tresnen tailerra egongo da eta 28an erraldoiena.

Urteurren jaia, 11:30ean hasiko da eskolatik abiatu eta Elizondorainoko kalejireagaz. Han egongo dira emonaldia eta ondoren poteo musikatua. Bazkaria hiruretan izango da eskolako aterpean. Bazkalostean eromeria egongo da Jokaldi taldeagaz.

Lemoako zatitxo bat

50. urteurrena ospatzen ha-

DURUNDI BARRI 50. URTEURRENA



sita dagoz Durundi Barrikoak. Lemoako jaietan txupina jantza taldekoak bota eben eta Joseba Etxebarria sortzaileari omenaldia egin eutsan Lemoak San Inazio Egunean. Izan be, 1966ko San Inazio egun haretan herriko talde batek zortzikoa jantzatu ebanetik, alkarlan eta lotura handia egon da Lemoako herria eta jantza taldearen artean.

Durundi Barri euskal jantza tradizionala egiten dau. Hogetabost umeren bueltan izaten ditue ikasle eta helduentzako ikastarook be antolatuten ditue.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

ARA OTZ
Landegian o jabetzen!

OPEL

ibalgama, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOIA (Bizkaia)
Tel. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

inbiu 2016

irailaren 17an

11:30 kultur etxetik hasita
ZUNBAJIRA herritik zehar

15:00 herri bazkaria

17:00 karaokea

18:30 Jokaldigaz erromeria

20:00 txokolatea

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 15 DIMA

Hilaren 23ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea.

LEMOA

Hilaren 23ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea.

Hilaren 23ra arte, Durundi Barri Dantza Taldearen 50. urteurrenko urri bigarrenaren 1eko bazkarirako txartelak salgai Jubiladuen tabernan, Gaztetxean, Abetan, Txoanen eta astelehenetan kiroldegian 19:00etatik 20:30era.

URRI LEHENENGOAK 16 IGORRE

Hilaren 29ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea.

URRI LEHENENGOAK 17 ARTEA

MerkArtea. 10:00etatik 14:00etara, azokea; 11:00etatik 13:00etara, Zuresku plazan; 12:00etatik 14:00etara, umeak ogia egiteko labe mobikorra; 12:30ean, erraldioiak kalejira, Gibelurdiak taldea; 13:00etan, herri kirolak Ekomuseoan; 20:30ean, kontzertua, Kalakan; 24:00etan, erromeria Tximeleta taldeagaz; 03:00etan DJ Bull.

IGORRE

Inbiu Eguna. 11:30ean, Kultur Etxetik hasita Zunbajira herritik zehar; 15:00etan, herri bazkaria; 17:00etan, karaokea; 18:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz.

ZEANURI

Zeanuriko II. Mendi Duatloia. 10:00etatik aurrera, izen emotea; 11:00etan, umeen duatloia; eguerdian, pasta bazkaria; 16:00etan nagusien proba.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak astegoieneko urtekera. Urbion eta Cebollerara.

URRI LEHENENGOAK 18 BEDIA

Kotxe Bako Eguna. 11:00etan, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan (kaskoa behar

da); 12:00etan, bide segurtasun zirkuitua; 14:00etan, parte hartzaileen artean bizikleta bat zozketatuko da.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Besaide (564 m.).

ZEANURI

08:30ean, Arratiako Ibaizetetik VII. Martxearen urtekera. Zeanuritik Bediara.

URRI LEHENENGOAK 19 ARTEA

Hilaren 23ra arte, udal ikastaroetan Artean erroldatuentzako izena emoteko epea. Udaletxean.

AREATZA

Hilaren 27ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.

URRI LEHENENGOAK 20 BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria, 3 eta 11 urte bitarteko umeentzat. Dinamizatzailea: Onditz Mendizabal. Liburutegian.

URRI LEHENENGOAK 21 IGORRE

18:00etan, jubiladuak antolatutako berbaldia: "Iktusa sintomak eta egin beharrekoak". Hizlaria: Koldo Nistal Abadiño osasun zentroan familia medikua. Jubiladuen txokoan.

URRI LEHENENGOAK 22 LEMOA

19:00etan, kultura proiektuko prozesurako bilera, Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

URRI LEHENENGOAK 23 IGORRE

10:30ean, Etika eta tratua ona adinekoai gaiaren gaineko jardunaldia. Arratiako Egoitzak antolatuta. Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, luzaketa tailerra.

URRI LEHENENGOAK 24 BEDIA

Jauregi-Yeuri auzoko jaiak.

DIMA

Dimetal Fest. 11:30etik 13:00etara, mahai-ingurua Gaztetxean. Estefania Garcia (In Mute), Gorka Mena (Etorkizun Beltza), Sergio R. Txabari (Eraso!) eta Dani Alvarez (EITB); 11:30etik 13:00etara, umeentzako jarduerak; 13:00etatik 14:30era metalpoteoa; 14:30etik 16:00etara, metalbazkaria frontoi handian; 16:00etatik 17:00etara, Txan Magoa frontoi handian; 17:00etan, Oldies of the Grave taldearen kontzertua Barullo aurreko plazan; 18:00etan, kontzertuen aurkezpena agerleku nagusian; 18:15etik 19:15era Incurseed frontoi txikian; 19:30etik 20:20ra Chivo Gaztetxean; 20:35etik 21:45era, Erasos! Frontoi txikian; 21:55etik 22:15era zozketea; 22:20tik 23:35era, In Mute frontoi txikian; 23:50etik 00:40ra Etorkizun Beltza Gaztetxean; 00:50etik 02:00etara, Lizzies frontoi txikian; 02:10etik 03:00etara Black Seed Gaztetxean.

IGORRE

10:00etan, lan eguna Kiñu Gaztetxean. Bazkaria lanera doazentzat. Dei berezia iturgintza, elektrizitatea eta igeltsutza dakienai.

Duatloi Herrikoa. 16:00etatik 16:45era, izena emoteko epea; 17:00etan, 6 urtera artekoen proba; 17:30ean, 7 eta 12 urte bitartekoaren proba; 16:00etan, 13 urtetik gorakoaren proba. Ondoren, kopautxo eta zozketea.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi lehiaketako sari banaketeta. Lemoatxen.

ZEANURI

Urbeko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 25 LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekera. San Mames (1.273 m.)-Peña Corba (1.332 m.).

Durundi Barri Dantza Taldearen 50. urteurrena: jantza taldeen alardea. 11:45ean, kalejira eleizako plazatik kiroldegiraino; 12:30ean, ekitaldia frontoian.

Urri bigarrenaren 1era arte, jantza jantzien erakusketea eta argazki erakusketea. Kiroldegian.

URRI LEHENENGOAK 26 ARTEA

29ra arte, udal ikastaroetan Artean erroldatuta

ez dagozantzat izena emoteko epea.

URRI LEHENENGOAK 27 IGORRE

07:00etan, urri bigarrenaren 4ra arte, jubiladuak Saloura bijsa. Jubiladuen txokoaren aurrean.

LEMOA

10:00etan, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, musika tresnen tailerra Kiroldegian.

URRI LEHENENGOAK 28 LEMOA

10:00etan, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, erraldioen tailerra Kiroldegian.

URRI LEHENENGOAK 29 ARTEA

San Migel ermitan mezea eta barauskarria.

IGORRE

Garbeto jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

19:30ean, Manu Cordovaren *Shiva, una aventura en el Rowling* ikusentzunezkoaren proiektzioa eta berbaldia Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 30 AREATZA

19:00etan, Arratiako Jabekuntza Eskolearen aurkezpena plazan.

BEDIA

18:00etan, ikuskizuna, pailazoak ludotekan.

ZEANURI

17:30etik 19:30era, GST Lasterketa Nagusiko eta Herrikoiko dorsalen banaketeta frontoian; 19:30ean, *briefing*-a. Berbaldi tekniko; 20:30ean, Alberto Iñurrategiren *Porrotaren alde* ikusentzunezkoaren proiektzioa eta berbaldia.

URRI BIGARRENEN 1 AREATZA


20:00etan The Reverend Richard John-en kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ZEANURI

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea. Ikusi egitaraua 11. orrialdean.

URRI BIGARRENEN 2 ZEANURI

11:00etatik aurrera, umeen lasterketarako izen emotea; 12:00etan, umeen lasterketea. Ostean herri kirolak umeentzat.



Kalakan Artean

Kalakan taldeak MerkArtearen egitarauaren barruan joko dau hilaren 17an, 20:30ean.

Talde ikusgarria da Merkarteako musikaldiko kartelburua. Ipar Euskal Herriko musika taldea da, euskeraz kantetan dabe eta kantu tradizioaletan oinarritzen dira. Kantu herrikoien moldaketak egiten ditue.

Katia eta Marielle Labeque pianistakaz emon ditue kontzertuak Europa osotik zehar eta 2012an Madonna abeslariagaz, MDNA Tour munduko biran hartu eben parte eta mundu osoan ezagunak egin ziran.

Taldeak kantu herrikoiai gaurkotasuna emoten deutse, rockaren eritmoak eta koplaleroak erabiliz.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garaiea eta trastelekua. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduetako eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauk deitu telefono honetara 628 041 526.

KIROL MAKINEA SALGAI

BH Fitness Quick Easy Eliptic kirol makinea salgai. Telefonoa: 615 783 915.

DANERIK

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauk 649

979 115 telefonora deitu.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolaria autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

ZERBITZARIAK BEHAR DIRA

Areatzako taberna batek zerbitzari bat behar dau jantokirako, eta beste bat tabernarako. Interesdunak 688 616 816 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

BEGITUKO kamiseta bana.


Saioa Larrea (Areatza)
Roberto Salazar (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ez hemen, ez hor. Errusiako ibaia.
2.- Gogobako. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 3.- Tratu. 4.- Letra bat. Hazia ipini. 5.- Arsenikoa. Bokala. Hotz gehiegi dagoanean esaten dan esklamazinoa. 6.- Astun. Bokala. 7.- Poztu. 8.- Tantaloa. Toki. 9.- Asebate. Galdetzaila.

GOITIK BEHERA

1.- Helioa. Lursagarra. 2.- Mosua. Alkarrizketa. 3.- Kantsazino. Nora atzizkia. Bokala. 4.- Lora sorta. 5.- Oxigenoa. Musika nota. Apurtu. 6.- Arratiako herria. Ukatze. 7.- Iluntasun. Edabe garbi.



Topau baserri baten inguruan egon leitekezan zazpi gauza.



AKI MI KO

Zorrozki lo



umaan moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnos.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 64 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: vnozulu@euskalnet.net

GORKA BARRENETXEA LARRINAGA

"Barnetegi ibiltariak mintzapraktikarako aukera ederra dira"

Igorreko Gorka Barrenetxeak 5 urte daroaz AEK-ko bizikletazko Barnetegi Ibiltariko arduradun bezala.

15 egunean zehar euskeraz bizi, gozatu, bidaiatu, lagunak egin eta Euskal Herria eta bertako ohiturak ezetuteko aukerea emoten dau barnetegi honek.

Miren Madariaga

Zer da Bizikletazko Barnetegi Ibiltaria?

Barnetegi honetan bizikletan igon eta pedalai ekinez Euskal Herriko leku polit ugari bisitetan doguz mendia eta kostaldea buztartuz. Aurten besteak beste: Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Bizkaiko zubia, Olite gaztelua, Matxitxako lurmurturra, San Juan Gaztelugatxekoa, Arabako lautada, Urbasa, Andia, Ultzamako herri ederrak, Irunberriko eta Arbaiungo arroiak, Anboto mendi misteriosua, Erronkari harana, Bizkaiko Butroi gaztelua, Abodi mendilerroa, Otsagi, Irati, Aralar, Omako baso margotua, Baztan... Hau da, danetarik daukagunez, danetarik dastatu dogu.

Era berean, euskereagaz lotutako hainbat ekintzaz gozatu ahal izan dogu: tokian tokiko hiztunakaz harremanetan ipini; jarduera kulturaletan parte hartu (diaporamak ikusi, ipuin kontalariak, erakustaldiak, bertso-afaria, bisita gidatuak); euskerearen erabilera sustatzeko tailerra; musika emonaldia/kontzertu akustikoa eta txalaparta tailerra eta txirringa konponketa tailerra. Eta, jakina, euskera irakasleak dagoz laguntzeko eta zalantzak argitzeko.

Bizikletaz ibiliz eta euskera lagun, gustuko opor ederrak pasetako aukerea emoten dauan barnetegi da. 15 egunez Euskal Herriko txoko, paisaje, leku bitxi, ohitura, euskalkiak zein hiztunak hobeto ezetuteko aukerea emoten dau.

Udan euskerea bere osotasun osoan (euskalkiak, euskara ikasleak, euskaldun osoak...) praktiketako modurik politena da. Azken finean, gure egunerokotasuneko gizartearen lagin adierazgarria da Barnetegi Ibiltaria.

Prestaketa fisiko handia eskatzen dau barnetegi ibiltarira joateak?

Bizikletea garraibide izanda, ibilbideak luzea dirudien arren, ez da aparteko prestaketa fisikorik behar. Ikasleak bizikletara eta erritmoa egokitzeko aukerea daukie, modu progresiboan egokitzen dira gainera, lehendabiziko egunetan gorputza eta hankak zaildu egiten dira, eta hortik aurrerako pedaldak inolako zailtasun barik emoten dira. Hori holan, ez da izugarritzko sasoirik behar barnetegi ibiltarietarako (oinezkoa zein bizikletazkoa). Azken finean egun guztia izaten dau erritmo gozoan eta bakoxtaren abiadurara egokituta taldeak eguneroko helmugara heltzeako.

Barnetegiaren logistika osoa bideratzeko furgonetaren laguntza daukagu, bertan motxilak, lo zakuak, kanpin dendak, janaria, mahaiak eta aulkiak... beraz, bizikletan ez da pisu handirik eroan beharrik. Hiru irakasle/antolatzailearen laguntzeagaz egiten dau aurrera ibiltariak: bata taldearen aurretik, beste bat atzetik taldea zarratuz, eta hirugarrena furgonetan laguntza emonez. Furgonetan doanak hainbat egitekogaz batera bazkaltzeko leku aproposa aukeratu eta kanpamentua antolatzeaz arduratuko da.



"Lesionaturik" baldin badago be furgonetan joango da, noski.

Zelan antolatzen dira etapak eta egunak?

Euskeraz egitearen abentura honen mintzamina lantzeako formatua dauka, mintzapraktikarako prestatutako ekimena. Kirola eta euskerea, edo, euskerea eta opor buztartuz, euskeraz biziteko nahia praktikara eramateko aukera argia da. Holan, ez da gitxieneko euskera mailarik eskatzen, 15 egunez euskeraz biziteko nahia izatea baino ez da behar. Euskeraz egitea edo behintzat euskeraz egiten saiatzea behin eta barriro. Guztiz ondo berba egin ez arren, gauzea egitea eta egitea da, euskerea ahoan jantzatzea ikasteko biderik eraginkorrena da eta. Erabilerearen garrantzia hori egunerokotasunean ikusarazo, eta barneratu egiten dabe ibiltariak.

Abenturatik be asko badaukala ezin da ukatu; izan be, frontoi baten, herriko aterpetxean edo ostatu batek itxi deuskun ganbaran lo egitea gertatu daiteke eta, norbere oroimen-kutxarako baino ez diran istorioak. Eta horri guztiari Euskal Herriko eguraldi aldakorra gehitu behar jako.

15 egunean zehar herriz herri eta mendiz mendi 1.000 kilometro inguru egiten dira, batez beste eguneko 65 bat kilometro. Behar beste geldiune egiten doguz interesgarri deritxagun lekuak ikusi

ahal izateko.

Zein da bizikletazko barnetegiaren parte hartzaileen profila?

Ataundik, Deustutik, Gasteizetik, ikasleak, erretiratuak, irakasleak, kirolariak, mintzatzera datozanak, oporrak pasetan datozanak, Euskal Herria ezagutzera datozanak, lagunak egitera datozanak... Danetarik topatuko dozu barnetegi ibiltarietan!

Euskeraz oporrak egiteko aukera hau oso garestia da?

Ezetz esango neuke. 35 euro inguru da egun bakoxta eta prezio horretan trasteak eramateko laguntza-furgonetea, hiru arduradun, lo egiteko ostatuak, jatorduek, aseguruak eta ekintza gehigarriak (museoetara bisitak, musika kontzertuak, tailerrak) barne dagoz.

Anekdotak asko izango doze horrenbeste egun alkarregaz pasau eta gero. Kontau egizu konfesau daitekean bat.

Kontatzekoak asko dagoz, bertaraztea eta bertatik bertara ezagutzea da aukerarik aberatsena. Dana dala, zeozer aitatzegaitik, barnetegi ibiltariak euskaldun kimu barriak emon ditu. Hau da, hainbat ustekabe eta karanbola emon ondoren Barnetegian ezetutako bi ibiltarik umetxoa izan dabe, eta bigarrena bidean. Adi, ez da bikote bakarra eta. Beraz, badirudi Barnetegietan ligau be egiten dala, kar, kar.

"Hamabost egunean zehar 1.000 kilometro inguru egiten dira, batz beste eguneko 65 kilometro"

Arratiako AEK

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordutegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Arratiako udal guztiak diruz lagunduta

Agirre Lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 - 607 632 916
arratia@aek.eus

aek
euskara praktikoa

100%
AFECTIVO

Eman izena • Matricúlate

